

Itxaro Borda, bortxaz itzultzaile

Aiora Jaka

UPV/EHU

Laburpena

Artikulu honen xedea Itxaro Bordaren obra literarioan itzulpengintzak izan duen leku eta garrantzia ezagutaraztea da. Idazle baionarra itzultzaile gisa ezagutzen ez bada ere, olerki eta testu solte asko itzuli eta argitaratu ditu zenbait euskal aldizkaritan, bereziki Maiatzan, baita han-hemenkako beste hainbat argitalpenetan ere. Itzulpen horien behin-behineko katalogo bat eginez, aise ikus daiteke Itxaro Bordak bere gustu eta balioekin bat datozen autoreen lanak itzuli ohi dituela, mendeetan zehar Euskal Herriko eta Mendebaldeko literaturen kanonetan lekurik apenas izan duten testuak, besteak beste emakumeenak, hizkuntza gutxituetan idazten duten autoreenak, Mendebaldeko literatur kanonetik aparte samar dauden literaturetako idazleenak, emakumetasunaz, feminismoaz eta lesbianismoaz diharduteenak... Itzultzaileak hizkuntzen eta kulturen arteko harremanetan eta bereziki xede-kulturaren garapen eta moldapenean betetzen duen funtzioaz jakitun, Itxaro Bordak bere interpretazio eta interesen arabera itzultzen, berridazten eta parodiatzen ditu testuak, interesatzen zaizkion alderdiak azpimarratuz eta hain gogoko ez dituenak eraldatuz.

0. Sarrera*

Itxaro Borda (Baiona, 1959) gaur egungo euskal idazle oparoenetakoa dugu: poesia, narrazioa, eleberria, saiakera, kronika, antzerkia... genero ia

* Ohore bat da niretzat Ibon Sarasolaren omenezko liburu honetan parte hartzea, bereziki nire itzultzaile-ibilbide osoan zehar funtsezko erreferentzetat izan ditudalako haren hiztegi, corpus eta gainerako lanak. «Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak» unibertsitate-masterrean ikasle nintzela izan nuen aukera ordura arte izenez soilik ezagutzen nuen autoritate haren irakaspenak bertatik bertara jasotzeko eta euskarazko testu corpus handi batetik abiatuta hiztegi bat nola taxutzen zen ikas-teko; gaur egun, ia egunero jotzen dut Sarasola eta bere lan-taldea osatzen ari diren Egungo Euskararen Hiztegi xehe bezain baliagarria. Ikerketa-lan hau Ministerio de Ciencia e Innovación de España erakundeak finantzaturiko eta Joseba A. Lakarrak zuzenduriko «Monumenta linguae Vasconum (IV): Textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (FFI2012-37696) proiektuaren barruan egin da. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (GIC 07/89-IT-473-07) ikerketa-talde finkatuaren eta UFI11/14 erreferentziadun UPV/EHUko Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen («Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara») lanen artean kokatzen da.

guztietan aritua da, eta haren bio-bibliografietan ageri diren liburu argitaratu ugarietz gain, aipatzekoa da halaber aldizkari, egunkari eta bestelako argitalpenetarako idatzitako artikulua, poema, narrazio eta kanten zerrenda luzea. Artikulu honetan, baina, baionar idazlearen ibilbideko beste alderdi batean jarri nahi dugu arreta, Itxaro Bordaren itzulpengintzan hain zuzen, uste baitugu haren obra literarioa ezin uler daitekeela itzulpengintzarekin izan duen harreman etengabe eta funtsezkoa gabe.

Idazle honen obra sakon aztertu duten kritikariek nabarmendu dutez (Gabilondo 2000; Atutxa 2008 2011; Retolaza 2010, 2013), bazterreko idazlea dugu Borda, periferikoa: bai geografikoki (Iparraldeko idazlea da Hegoaldeko idazleek osatzen duten euskal literatur kanonaren barruan), bai linguistikoki (haren idazkera asko urruntzen da euskara batuaren eredu estandarretik), bai generoaren aldetik (emakumea da gizonak nagusi diren euskal literatur sisteman), bai sexu-aukeraren aldetik (idazle lesbianatzat du bere burua, heterosexualitatea arau nagusi den gizarte eta literatura batean)...

Landu dituen generoei dagokienez, ezin esan guztiz bazterrekoa denik, egungo euskal literatur sistemaren erdigunean kokatzen den generoa, eleberria, oparo landua baitu: 10 nobelaren egile dugu Borda.¹ Baina, gorago esan bezala, ez da hori landu duen genero bakarra, eta bazterrekotzat jo genitzakeen beste hainbat generotan ere aritua da. Horien artean sartuko genuke itzulpena, literatur sistemen barruan periferian kokatzeko joera duen generoa. Euskal literatur sistemara etorrita, esan beharra dago itzulpenak beste sistema batzuetan baino leku handiagoa betetzen duela estatistikoki edo kuantitatiboki, baina esango genuke kanonaren osaketan sorkuntza originala dela nagusi; horixe berretsiko luke, hain justu, Bordaren obra aztertzean haren itzulpenak bazter uzteko joerak. Hutsune hori bete nahi luke, beraz, hemen aurkezten dugun artikulua honek. Lehenik eta behin, Itxaro Bordak itzulpengintzari buruz esandakoak bilduko ditugu, han-hemenkako artikulua eta hitzaldietan maiz plazaratu baititu itzulpengintzari buruzko gogoetak. Bigarrenik, euskarara zer eta nola itzuli duen aztertuko dugu. Ondoren, itzulpena eta sorkuntza bere lanean nola uztartzen diren ikusiko dugu. Eta, azkenik, espazio-kontuengatik sakon aztertzerik izango ez dugun arren, Itxaro Bordak auto-itzulpenarekin duen harremana aipatuko dugu, sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko joan-etorri hori ikertzeko bidea zabalik utziz.

¹ Iratxe Retolazak ohartarazi bezala, emakumeek bazterreko literatur generoetara jo ohi dute (ipuina, poesia...), eta ez genero zentral edo kanonikoetara (gaur egun: eleberria). Zentzu horretan, esanguratsua da Bordaren eleberrietarako joera. Euskal emakume eleberrigileen artean benetakoa salbuespena da, gainerako emakume idazleek oso urrunetik jarraitzen baitiote idatzitako nobela kopuruari dagokionez (Retolaza 2013).

1. Itxaro Borda itzulpengintzaz

Idazten hasi orduko ohartu zen Itxaro Borda euskal tradizio literarioan nekez aurkituko zuela bere interes literarioak aseko zituen eredurik. Bere idazle ibilbidearen hasiera-hasieratik, behin eta berriro errepikatu izan du euskal literatura apaizen eta notableen esku egon dela, eta tradizio horretan ez dela bestelako alternatibentzat aukerarik egon, batez ere Iparraldean:

Etxepareren olerkietan italiar poeten urruneko eragina sentitzen ahal baldin bazen, Kontraerreformako izkiriatazaileenetan dotrinaren estalkiaren heretsikeria nabari zitekeen. Teologia-liburuek, erretorikak, exegeta-lanek, katiximek hargatik —besterik ezean ote?— Iparraldeko literatur tradizioa zedarritu zuten, eta naski Euskal Herri osokoa, XIX. mende arte bederen.

Iparraldeko literaturgintza tradizio horren gainean bermatu da luzaz [...] (Borda 2001a: 19)

Tradizio horretan, beraz, eredu modernoek ez dute lekurik izan: «iparraldean literatura erranahi modernoan ez da sekulan egin» (Borda 1985: 36). Oso gai jakinetara mugatu da luzaz euskal literatura: «Euskal literatura tradizioa, luzea izanagatik, kolore bakarrekkoa da: erlijioa, fedea, teologia, nekazaritza, bertsolaritza, euskal ohiturak» (Borda 2013a: 6). Gainera, guganaino iritsi den tradizio hori gizonek idatzia izan da ia eskusiboki: «Klasikotzat hartzen dugun literatura guztia gizonezkoen lumatik etortzen zaigu» (Borda 2001b: 131), eta emakumeek idatzitako literatura apurra ere ikusezintasunera kondentatuta egon da orain gutxi arte bederen.

Gizonek idatzitako literatura erlijio-usaineko eta nekazaritza-giroko hartan, bada, Itxaro Bordak ez zuen gustuko eredu askorik topatzen, eta hala ekin zion eredu literarioak kanpoan bilatzeari, beste literaturetan idatzitako obrak irakurri eta itzultzeari, hain zuzen: «Oinarriak ez baldin badira jatorrizko hizkuntzan kausitzen, nonbait xekatzen dira» (Borda 2001c: 33). Descartes *Metodoaren Diskurtsoa* izan omen zen itzuli zuen lehen obra, 18 urterekin itzuli ere, «Axularek idazten zuen moduan» itzuliz frantsesetik euskarara (Borda 2013a: 6). Itzulpen hura inoiz argitaratu ez bazuen ere, bere «barne-prozesurako» oso baliagarri izan omen zitzaion:

Uda hartan, asko ikasi nuen nerabilan hizkuntzari buruz, honen mugak eta zabalkunde-musikalak non zeuden adibidez, eta olerki zein bertsoen idaztea baino luzeiago idazteari buruzko ene ahalmenari dagokionez. Itzulpen-une hura [Descartes *Metodoaren Diskurtsoa* itzultzen emandakoa], itzulpena aitzakia ote? arras esperientzia berezia, biluzia eta obsesionatua bezala gogoratzen dut, plazerra, nekea eta jakin-mina nahasten zirela, arazo linguistikoak —neureak— nola konpon eta aitzina nola joan beilatzen nuela (Borda 2001c: 34).

Itzulpena, idazle baten formakuntzan, behar-beharrezkoa dela uste du Bordak: «Lehen jaidura da itzuliz «imitatzea» eta segidan, ahalen arabera

«imitazioaren» gainditzea, norberaren idazkeraren logika eta premiaren aurkitzeko» (Borda 2001c: 35). Itzultzearen ariketari esker, hizkera pertsonal bat garatzea lortu du: «Uste dut itzulpena zela medio euskara pertsonala asmatu nuela eta itzultzen dudanean asmatzen darraidala, mintzairaren edukia emendatuz» (Borda 2013a: 6).

Hizkera aberasteko ez ezik, euskal literaturan lekurik izan ez duten gaiak euskarara ekartzeko ere balio izan dio itzulpenak Bordari: «Frangotan haren [jatorrizko idatziaren] lerroetan euskaraz sekula aipatzen ez diren gaiak, ideiak edo irudiak aurkituko ditu [itzultzaileak]» (Borda 2013a: 6). Hain justu, berari interesatzen zaizkion autore eta gaiak ekarri ditu euskarara, euskal literaturan aurkitu ez dituen tematika, estilo eta ereduak inportatuz eta Mendebaldeko kanonetik kanpo geratu izan diren autoreei lehentasuna emanaz. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, emakume asko aurki daitezke Itxaro Bordak euskaratutako egileen zerrendan; baita hizkuntza gutxituetan idazten duten autoreak ere; Mendebaldeko literatur kanonetik aparte samar dauden literaturetakoak; emakumetasunaz, feminismoaz eta lesbianismoaz dihardutenak...

Izan ere, oso argi izan du beti Bordak hizkuntza batera itzuli izan denak zer nolako eragina izan duen hizkuntza horren literaturaren bilakaeran eta, ondorioz, baita hizkuntza hori mintzatzen duen populuaren izaeran ere. Badaki itzulpena herrien menderakuntzarako eta kolonizaziorako tresna gisa erabili izan dela, boteredunek helburu zehatz batzuekin hautatu izan baitituzte maiz hizkuntza batetik bestera itzultzeko obrak. Europaren XIX. mendeko konkista kolonialaren ondorioz «populuak Hitzaz desjabetuak» izan zirela gogorarazten digu, «indio, aborigen, afrikar, tamuldar» eta beste hainbat jendetzatan egindako testu-bilketa eta itzulpen-lan zabal baten bidez. Itzulpengintzan, ohartarazten digu Bordak, politika-arazoak direla bide «hautatzen, baztertzen edo ezezagutzen» da (Borda 2001c: 28).

Euskal Herrian ere elite boteredun baten esku egon da mende luzez euskarara itzuliko ziren obren hautaketa:

Apezek eta notableek, eskolatuenak zirelakoan, alfabetisatuak, hiru hizkuntzetan gutxienez (latina, frantsesa eta euskara) hartu dituzte literaturaren giderrak. Hauek ziren ere Europa zaharra inharrosten zituzten ideietaz informatuenak. Beren astekarien edo aldizkarien bitartez arrotz jakitate horren alde sinplifikatuak eskaini dituzte beren iduriko irakurlei (Borda 1985: 34).

Elizgizon jakintsuz osatutako elite horrek hautatu du, beraz, zer itzuli behar zen euskarara, zer transmititu behar zitzaien euskal herritarrei, hala menpekoak kontrolatzen jarraitzeko: «Transmizioa podere bat da, meneko duten kontrolatzeko indar handia» (Borda 1985: 34). Eta esan gabe doa elite boteredun hori gizonek osatu dutela beti, eta haiek erabaki dutela zein diren kanon literarioan onargarriak diren balioak. Emakumeek ez dute orain arte behintzat inolako ahotsik izan kanon horren osaketan; Bordak ozen salatu

izan du «emaztea —eta, bereziki, idazten duen emaztea— gutxietsia den hizkuntza bat ezpainetan darabilen kolonizatuaren kinka berean dagoela: nor eta zer den erraiteko lotsa» (Borda 2001b: 132).

Itzulpena testuak manipulatzeko eta giza taldeak kontrolatzeko tresna gisa erabili izan den bezala, baina, kontrol horren eraginpetik ateratzeko ere erabil daiteke, azken hamarkadetako teoria postkolonialiek eta itzulpenaren teoria feministek erakutsi duten bezala. Itzulpenaren botere askatzaile horretaz oso kontziente da Itxaro Borda ere. Hala, mendeetan zehar inposatutako kanon, eredu eta hierarkiak hausteko baliabidetzat darabil itzulpena, luzaroan isiltasunera kondenatutako ahotsak entzunarazteko bitartekotzat: «Itzulpenari esker kolonialismoaren denborako unibertsaltasun zapaltzailearen irudia hausten da mintzaireren baitako harremana berdinduz eta neurri batean hedadura eta indarragatik erlatibisatuz» (Borda 2013a: 17). Horrexegatik mintzarazten ditu euskaraz Mendebaldeko kanonetik baztertuak izan diren hainbat eta hainbat egile.

2. Itxaro Borda itzultzaile: itzulitako autore eta obrak

Itxaro Bordaren ohiko bibliografiak kontsultatzen dituenak nekez izango du idazle baionarrak euskaratu dituen testu anitzen berri. Izan ere, Bertolt Brechten *Kaukasiar krea*zko *borobila* antzezlan (2006) eta *Maria Mercé Marçal* poesia antologia (2014) dira Itxaro Bordaren itzulpenak liburu formatuan biltzen dituzten argitalpen bakarrak, guk dakigula. Itxaro Bordak euskaratutako testuen ugaritasun eta aniztasuna ezagutzeko, baina, ezinbestekoa da zenbait aldizkari literarioren orrialdeak arakatzea, bereziki *Maiatz*² aldizkariarenak, hantxe argitaratu izan baititu gustura irakurri ondoren euskarara itzuli dituen hainbat eta hainbat poema:

Maiatz aldizkarian publikatzen ziren itzulpen-sail guziz gehienak ene lumatik ziren, nahiz eta sinatuak ez izan. Ardurenean frantsesetik euskaralat egin ditut. Itzulpenak, gure hizkuntzan «mundua» eskuzabalki eskaintzen zizulako ustea nuen, eta ustea dut beti «mundu hautatuen» jasta ematen digulako.

² Azpimarratzekoa da *Maiatz* aldizkariak Itxaro Bordaren literatur ibilbidean izan duen garrantzia. Iparraldeko literaturazale gazte batzuek sortu zuten aldizkaria 1981ean, 1970eko hamarkadara arte Iparraldean nagusi izan zen probintzialismoari aurre egin eta euskarazko literatura moderno bat sortu nahirik. Itxaro Bordak, lehen hamar urteetan aldizkariaren zuzendari izateaz gain, hainbat eta hainbat poema, narrazio, artikulua eta itzulpen argitaratu izan ditu *Maiatzen*, eta behin baino gehiagotan azpimarratu izan ditu aldizkari hark Iparraldeko idazleei oro har eta emakumeei bereziki eman dizkien babes, bultzada eta aukerak (Borda 2001ab). Egiteke dago oraindik, dena den, aldizkariak euskal literatur sisteman izan duen leku, ekarpen eta eraginaren ebaluazioa, baita han argitaratu diren itzulpen guztien azterketa ere (itzulpen gehienak Itxaro Bordarenak diren arren, beste izen batzuk ere nabarmentzen dira *Maiatz*eko itzultzaileen artean, Lucien Etchezaharreta eta Aurelia Arkotxa besteak beste).

Halaz, nihaurek kanpoko aldizkarietan edo egunkarietan «deskubritu» arau, *Maiatz*-en irakurleei «deskubriarazten» nituen. Itzultzen nuena poesia zen bereziki, ene alor kuttunena (Borda 2001c: 35).

Bere izenez sinatutako lehen itzulpenak *Maiatz* aldizkariaren 9. zenbakian topatu ditugu (1985ean kaleratua), non Borges en ipuin baten ondoren beste zenbait autoreren olerki euskaratuak ageri diren: Sappho, Li T'ai-Po, Dante, Ahmed Fouad Negm & Cheikh Imam, Friedrich Hölderlin, Czeslaw Milosz eta Kahlil Gibran. Urte berean ateratako 10. zenbakian, aldiz, hainbat autore txinatar garaikideren poemak argitaratu zituen. Geroztik, aldizkariaren zenbaki guztietan ez bada ere, aldian-aldian joan da Borda hango eta hemengo autoreak euskal irakurleei ezagutarazten: errusiarrak, senegaldarrak, palestinarak, armeniarak... Artikulu honen eranskinean eskaintzen dugun taula ikusita, nabarmen da Itxaro Bordak *Maiatz* aldizkarian egiten duen itzulpen-lana ez dela goiz bateko apeta, munduko literaturak euskal literatur sistemara gerturatzeko lan sendoa baizik. Bordak berak aipatua da (Borda 2001c: 36) horretarako *Europe* literatur aldizkari frantsesa erabili ohi zuela eredu eta itzulgaien harrobi.

Hegats aldizkarian ere aurkitu dugu Itxaro Bordak euskaratutako olerkien sail mamitsu bat: 1994an kaleratutako 11. zenbakian, bada «Okzitaniar Poesia» izeneko atal bat, non sei idazle okzitaniarren poemak jasotzen diren, jatorrizko bertsoan eta Itxaro Bordaren euskarazko itzulpenean.

Bestalde, Susa argitaletxeak kudeatzen duen *armiarma.com* webgunean, Itxaro Bordak euskaratutako Monique Wittigen hiru narrazio aurkitu ditugu: «Ihauteria», «Eromenari deika» eta «Isolazionistak ala isolatuak?» (Borda 2013b). Autore beraren artikulu baten itzulpena ere egina eta argitaratua du Bordak *Desira desordenatuak* izeneko artikulu-bilduman: «Ikuspuntu berezia ala unibertsala?» (Borda 2010b).

Galizian Lois Pereiroren omenez argitaraturiko liburu monografiko batean, autore galiziarraren poema baten euskarazko itzulpena dago, Itxaro Bordak sinatua: «Bizkorra eta ernea», hain zuzen «Alerta e vixiante» poemaren itzulpena. Kasu honetan, enkarguz eginiko lana dela dirudi.

Azkenik, aipatzeko modukoa iruditzen zaigu Tina Escaja idazle espainiarrak esperimentu zibernetiko batetik abiatuz idatzitako *Respiración mecánica & VeloCity: Respiració mecànica / Respiración mecánica / Hats hartze mekanikoa* (2013) liburua, jatorrizko testuaz gain katalanezko, galegozko eta euskarazko itzulpenak biltzen dituena, euskarazkoa Itxaro Bordak egina.

Ziurrenik izango dira Bordak euskaraturiko beste zenbait testu guk aztertu ez ditugun hango edo hemengo argitalpenen orrialdeetan,³ eta guk egin-

³ Badakigu, esaterako, Joseba Tapiak sei kantari quebeetarren kantez osaturiko «Quebec. Hamalau kantu independentziarako» (Gaztelupeko Hotsak, 1999) diskoko hitzen moldaketak Itxaro Bordak eta Koldo Izagirrek eginak direla. Bestalde, *armiarma.com* webguneke «Euskarari ekarriak» bilatzaileak Marc Legasseren *Infante zendu batendako pabana* (Txertoa, 1987) zerrendatzen du Itxaro Bordak euskaratutako lanen artean; badirudi, halere, Legassek eta Bordak elkarrekin idatzitako antzezlan dela.

dako bilketa ez da ziurrenik guztiz oro-hartzailea izango. Dena dela, uste dugu hemen jaso ditugun itzulpenek eskaintzen digutela Itxaro Bordak euskaratutako testuen argazki orokor bat ateratzeko nahikoa material. Argazki horretan, badira nabarmentzeko moduko ezaugarri batzuk:

Lehenik eta behin, badirudi poesia dela Itxaro Bordak itzulpenerako gogokoen duen generoa. Zenbait narrazio (Monique Wittigen hiru kontakizun, Luisa Villaltaren narrazio pare bat...), antzezlan bat (Bertolt Brechten *Kaukasiar kreazko borobila*) eta artikuluren bat edo beste (Monique Wittigen «Ikuspuntu berezia ala unibertsala?», *Hegats* aldizkariko «Okzitanier Poesia» atalari Alain Viautek egindako hitzaurrea...) izan ezik, gainerako itzulpen guztiak poesiaren generoari dagozkio.

Bigarrenik, azpimarragarria iruditu zaigu Itxaro Bordak euskaratutako autoreen artean nekez ageri dela XX. edo XXI. mendekoa ez den idazlerik: gorago aipatutako Sappho, Li T'ai-Po, Dante, Hölderlin eta XIX. mendeko zenbait autore errusiar kenduta, apenas itzuli duen Bordak garaikidea ez den autorerik.

Hirugarren datu esanguratsua emakumeek duten leku handia da. Gizonezkoen lanak ere ageri diren arren Bordak euskaratutako testuen artean, azpimarragarria iruditu zaigu emakumeen presentzia. Hona hemen zenbait adibide: Anna Akhmatova, Olga Bergholtz eta Natalia Galkina errusiarrek; Denise le Dantec eta Angela Duval bretoiak; Marguerite Duras eta Monique Wittig frantsesak; Fatou Sow Ndiaye, Ndeye Coumba Mbenge Diakhate, Anette Mbaye D'Erneville eta Kine Kirama Fall senegaldarrak; Fadwa Touqan palestinarra; Jasna Samic bosniarra; Berta Piñan asturiarra; Luisa Villalta galiziarra; Maria Mercé Marçal katalana; Silva Kaputikian, Sonia Nigolian, Shamiram Sevag, Violeta Krikorian eta Marine Petrosian armeniarrek; Marcela Delpastre okzitaniarra...

Laugarrenik, aipamen berezia merezi dute, gure ustez, emakumetasunarekin, feminismoarekin, sexuarekin eta lesbianismoarekin lotutako gaiak biltzen dituzten testuek. Gai horiek ez dute oso berriki arte inolako lekurik izan euskal literaturan, Itxaro Bordak berak «Gaiaren minean» izeneko artikuluan ozen salatzen duen bezala (Borda 2010a). Gai horiei buruz euskaraz idatzi ez denez, beraz, halako kontuak deskribatzeko hitzik ere ez dugu: «Ez du aspaldi sexu-harreman hetero zein homosexualak, adibidez, papelean jartzeko hitzak, ez apalesleak, eskura dauzkagula» (Borda 2013a: 6). Horrexegatik ekiten dio Bordak, neurri handi batean, halako gaiak jorratzen dituzten autoreen lanak euskaratzeari: batetik, euskal irakurleen esku jartzeko orain arte euskaraz irakurri ez dituzten zenbait gairi buruzko kontuak; bestetik, euskaraz gai horiei buruzko hiztegi eta hizkera bat osatzen eta garatzen joateko. Feminismoari eta lesbianismoari loturiko eta Bordak euskaraturiko egileen artean, besteak beste, Monique Wittig feminista frantsesa eta Maria Mercé Marçal poeta katalana ditugu. Azken hori dela-eta, Bordak berak publikoki aitortua du zenbateraino sentitzen den emakume harekin identifikatua:

Urte bat bihikatu nuen Maria Mercé Marçal katalandar olerkari lesbiana-ren poesia bat egunero euskaratzen eta nerauk zuzendu nion poeman erraten dudanez *urte bat eman dinat hirekilan hiltzen...* euskaraz baina Maria Mercé Marçal bilakatzen nintzela iruditzen zitzaidan, identifikatzea azken puntaraino eramanez, enpatiaz hanturiko inkorporatze fisikoa bailitzan: beraren moduan lesbiana naiz, ama soltera eta gehienetan poeta. Ardura pentsatzen nuen bertsio honekin pozik legokeela bizirik balego eta euskaraduna izan bailitz nik itzultzeko baliatu euskaraz izkiriaturuko zuela Maria Mercé Marçalek, eta ez bestela! (2013a: 12).

Azkenik, Itxaro Bordak itzulitako autoreen zerrenda kontsultatzean antzeman daitekeen beste ezaugarri bat hizkuntza eta literatura «txikiakiko» atxikimendua da. Zerrenda horretan, asko dira gure inguruko hizkuntza minorizatueta idazten duten autoreak (bretoiak, okzitaniarrak, galiziarak, katalanak, asturiarrak...), baita Mendebaldeko literatur kanonetik aparte samar dauden literaturretakoak ere (poloniarrak, errumaniarrak, bosniarrak, palestiniarrak, armeniarak, libanoarrak, senegaldarrak, txinatarrak, mexikarrak...).

Esan dezakegu, laburbilduz, halako autoreen lanak euskaratuz Bordak aurre egin nahi diela, batetik, euskal literatur tradizio kanonikoan nagusi izan diren gaiak, eta, bestetik, Mendebaldeko literatura handiek osatzen duten hierarkiari. Izan ere, gorago ere aipatu dugunez, hizkuntza batera itzultzen den literaturak eragin izugarria du hizkuntza horretako literatur sisteman.

3. Itxaro Borda: traditore ala?

Izenburu esanguratsuko «Traditore ala?» artikuluari galdera batekin ekiten dio Itxaro Bordak:

Itzultzailea zer da? Hauxe da galdera.

Ardura lokuzio italiar ezaguna jiten zaigu gogora, itzultzea aipatzera-koan. *Traduttore, traditore* alegia. Itzultzea, oinarritzko testu baten traditza dea, ala itzultzaileak bere hizkuntzara pasatzen duelarik jabetzea; hizkuntza berriko ekoizpen kulturala bilakatzen dela funtsean? Galderak dira eta ni ez naiz egiazko itzultzaile, horiei erantzun egoki emateko (Borda 2001c: 25).

Zuzenean erantzuten ez badu ere, haren artikulua irakurriz eta batez ere hark itzulitako testuak aztertuz, argi esan dezakegu idazle baionarrarentzat testu arrotz bat itzultzea testu hori bereganatzea dela, bere bizi-esperientzia, desira eta helburuetara egokitzea, xede horretan jatorrizkoa «traditu» behar baldin badu ere. «Itzulpena beti subjektiboa da» (Borda 2001c: 39), gogorarazten digu «Traditore ala?» artikulua ixten duen esaldian, argi utziz itzultzaileak bere interpretazio pertsonalaren arabera moldatzen duela beti testua, «itzultzaile bakoitzak bere trebeziarik handiena ezartzen baitu lanean, interpretatzen duelako eta bere jendartearen kezka bezain kultura erduei egokitzen» (Borda 2013a: 11).

Gainera, fideltasunaren ideia, Mendebaldeko hizkuntza nagusietako itzulpen-teoria tradizionalak hain funtsezkotzat jo izan duten irizpidea, ez dugu uste ondo ezkontzen denik Itxaro Bordaren balio feminista eta aurrerakoiekin. Izan ere, azken hamarkadetako itzulpen-teoria feministek erakutsi duten bezala, itzultzaileak jatorrizko testuari zor (omen) dion fideltasuna bikote heterosexual batean emakumeak gizonari zor dion leialtasunarekin konparatu izan da sarri: jatorrizko testua —gizonezkoa—, «benetako», «orijinala», ezin ukituzkoa da, eta itzultzaileak —emakumeak— otzan, leial eta ikusezin jokatuz ahalegindu behar du testu orijinal hori inolaz ere manipulatu gabe beste hizkuntza batera ekartzen. Itzulpen-teoria feministek, aldiz, hautsi egin nahi dute idazle/itzultzaile - gizon/emakume banaketa dual eta hierarkiko hori, itzultzaileen eta emakumeen independentzia eta esku-hartze ahalmena aldarrikatuz eta testuak nahierara itzuliz eta manipulatu.

Itxaro Bordaren kasuan, ez genuke esango testuak nahita manipulatzeo desirarik agertzen duenik, haren itzulpenak ez baitira jatorrizkotik asko urruntzen (ez behintzat zenbait itzultzaile feministak egin izan duen bezala). Baina iruditzen zaigu jatorrizko testuarekiko leial irautea baino gehiago axola zaiola bi hizkuntzaren artean sortzen den hirugarren espazio sortzaile horretan zerbait berria sortzea: «Hizkuntzen arteko *no (wo)man's land* hori naski sortzeko orduan [...] gunerik eraginkorra dela frogatzen du artegintzaren Historio luzeak». Bihurpen sortzaile horretan, itzultzailea «jainko bat da edo egiazkoagoa dena, egikari edo aktore bat, bere kultura gainditzen duenik, bestearen jakitate osoa hain zuzen bere kulturako irakurleen edo entzuleen eskura uzteko. Nortasuna ezabatzen doakio, batera izanez eta ez izanez» (Borda 2013a: 2). Bordaren adierazpen horiek irauli egiten dute nolabait itzulpen-teoria tradizionaletan nagusitu izan den jatorrizkoaren autoritatearen ideia. Jainkoa jatorrizkoarekin lotu izan da itzulpen-teoria tradizionaletan, inola ere ez jatorrizkoaren hitz sakratu hori bere horretan itzuli behar zuen itzultzaile mekanikoarekin. Itxaro Bordak argi esaten du itzultzaileak izugarrizko boterea duela itzuli beharreko testuaren osaketan, eta itzultzaileak testua aldatzen duen era berean aldatzen duela testuak ere itzultzailea.

Itzultzailearen botere sortzaile hori itzulpenean nola agertzen duen erakusteko, Monique Wittig idazle frantsesaren hiru kontakizunen itzulpenak aipatuko ditugu. Jatorrizko liburuaren hitzaurrean, autoreak adierazten du «elles» izenordain femeninoa erabiliko duela normalean «ils» maskulinoa erabiltzen den kasu generikoetan, hizkuntza barruko sexu-kategoriak ezeztatzeo helburuz. Liburuiko kontakizunetan, beraz, «elles» izenordaina ageri da emakumez eta/edo gizonez osatutako taldeen ekintzak deskribatzen diren bakoitzean. Bordak, jatorrizko bertsio frantsesean balio generikoz erabiltzen den «elles» izenordain femeninoa euskaraz ematerik ez duenez, bestelako konpentsazio-estrategia bat erabiltzen du: Wittigek bigarren pertsona darabilen guztietan, Bordak hikako bigarren pertsona femeninoa agerrarazten du. Hala, jatorrizko testuan «elles» izenordain errepikatuak sortzen duen efek-

tuaren antzekoa lortzen du itzulpenean nokako adizkiak erabilita (letra lodiz markatu ditugu jatorrizko bertsioko «elles» izenordainak eta itzulpeneko nokako adizkiak):

[...] Dès que j'aperçois une de ces infortunées, je lui crie de plus loin que je la vois : dissimule avec soin ce que tu penses. Ne dis pas un mot surtout. Je lui dis : attention, **elles** t'attaqueront sauvagement en disant que c'est toi qui les fais périr. **Elles** te torderont le cou avec des sanglots dans la voix. Et les larmes qui roulent sur leurs joues témoigneront hautement qu'**elles** sont les souffre-douleur et que le bourreau c'est toi. Puis **elles** t'enfonceront dans la fosse pleine de merde en prétendant que c'est dans un bain d'eau de rose, elles t'y noieront, étoufferont, feront suffoquer. Enfin **elles** t'enfonceront au fond de la terre, **elles** t'y feront disparaître et non contentes du peu elles planteront à l'endroit du sol qui t'aura recouverte et qu'**elles** battront de leurs semelles une pancarte portant les mots : Ici il n'y a personne (Wittig 1999: 32-33).

[...] Zorte gabedun horietarik bat ikusten dudan bezain laster ahalik urrutietik oihutzen diot: artoski ezkutatu **ezan** pentsatzen **dunana**. Oroz gainetik ez hitz soil bat ahoskatu. Erraten diot: kontuz ibili, hik **ditunala** hiltzen erranez salbaiki erasoko haute. Negarrak ahotsean lepoa bihurtzeko **dinate**. Eta mateletan lerratuko zaizkien malkoek goratik frogatuko dute haiek direla sufrituak eta hi haizela borraroa. Eta gorotzez beteriko zulo batean sartuko haute arrosa urezko bainua dela alegiatuz, itoko haute, hatsa bahituko **dinate**, trenkatuko. Azkenean lurraren sakonean sakatuko haute, desagertaraziko eta hori aski ez bailitzan estaliko hauen eta oskiez zapalakatuko duten lurraren gunean seinale bat landatuko **diten**: hemen ez dago nehor (Borda 2013b).

4. Itxaro Borda, itzulpenari esker sortzaile

Dagoeneko aipatu dugu nolako eragina izan duen itzulpengintzak Itxaro Bordaren sorkuntza literarioan. Idatzi dituen testuetako asko ez zituzkeen idatziko baldin eta alde zurretik ez balitu beste zenbait testu itzuli. Itzulpenak bultzatu omen du beti idaztera: «Oroitzen naizenetik itzulpenak akuitatu nau idazketan» (Borda 2013a: 5). Horren adibide garbia dugu, esaterako, «Maria Mercéren (b)egia» izeneko poema, Marçalen poemak euskaratzearen esperientziak inspiratuta idatzia:

Urtea eman dinat hire hitzak biltzen.
Ene mintzairan ere ez hintzen isiltzen.
Elerik samurrenak nintinan ibiltzen
Eskail nagiaz itsu, mirail birilbiltzen.

[...] (Borda 2013a: 19)

Poema horretan, itzultzailea sortzaile bihurtzen da bat-batean: itzulpenak ez du Borda inolaz ere sorgor utzi, eta Marçalen testuek eragin dioten inpak-tua hitzetara «itzultzeko» beharra sentitu du.

Itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko muga lausotuta geratzen da, hala-ber, Itxaro Bordaren sorkuntzazko beste lan batzuetan. «Milia Lastur *revis-ited*» eta «Milia Lastur *on the road*» poemak, esaterako, XVI. mendean jaso-tako Milia Lasturkoaren eresiaren berridazketa edo «itzulpen» modernoak direla esan liteke. Ibai Atutxak ondo aztertua duen bezala, Itxaro Borda erre-pikapen, parodia eta berridazketaz baliatzen da maiz testu batzuetan ageri di-ren premisak hankaz gora jarri eta bestelako esanahi batzuk proposatzeko:

«[Milia Lastur revisited] eta «Milia Lastur on the road» poemek] repiten los esquemas coercitivos de las propuestas de nación y estado-nación actua-les, para caricaturizarlas y excederlas con el objetivo de hacer patente su arti-ficialidad y proponer la posibilidad real de un cambio (Atutxa 2011: 216).

Berridazketa horiek, beraz, euskal tradizio klasikoko eresia baten itzul-pentzat jo litezke. Ez dugu ukatuko, noski, Itxaro Bordaren sorkuntza orijina-lak direnik, baina ezin dugu esan hutsetik sortuak izan direnik ere. Izan ere, Bordak berak aitortzen duenez, «[l]iteratura guztia itzulpena da, jatorrizko mintzairan asmatua barne» (Borda 2013a: 4). Hots, norbere hizkuntzan «sor-tzen» ari dena ere «itzultzten» ari da ezinbestean, aurretik irakurri eta beregan-atutako testuak «traditzen», «hobetzen» eta «moldatzen».

Zentzu horretan, Amaia Ezpeldoik detektibearen pentalogia osatzen duten bost eleberriak⁴ ere detektibe-nobelen, bidaiari-nobelen eta ohiturazko nobelen berridazketa parodiatutzat har litezke (Retolaza 2010, 2013), Itxaro Bordak irakurri, bereganatu eta bere gisara interpretatu dituen literatur-genero batzuen birmoldaketa edo itzulpentzat. Bost eleberri horietan zenbait dikotomia zalan-tzan jartzen diren bezala —identitate nekazaria vs. hiritarra; identitate hetero-sexuala vs. homosexuala; identitate linguistikoko hegemonikoa vs. periferikoa (Retolaza 2010 2013)—, gaineratu genezake sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko mugak ere lausotuta geratzen direla Amaia Ezpeldoiri buruzko liburu ho-rietan ez ezik, baita Itxaro Bordaren beste hainbat testutan ere.

5. Ondorioak

Artikulu honetan erakutsi dugun bezala, itzulpena oso presente egon da beti Itxaro Bordaren idazketan. Itzulpenarekin hautsezinezko erlazioa izan du bere literatur ibilbide osoan zehar. Argi adierazi izan du beti euskal idaz-leak kondenatuta daudela nolabait itzultzaile izatera:

⁴ *Bakean ützi arte* (Susa, 1994), *Bizi nizano munduan* (Susa, 1996), *Amorezko pena baño* (Susa, 1996), *Jalgi hadi plazara* (Susa, 2007) eta *Boga boga* (Susa, 2012).

Bukatzeko erran nezake itzulpena, irakurtzen dena eta bistakoa denez «egiten» dena biak beharrezkoak zaizkiola idazleari orokorki, eta partikulazki euskal idazleari. Publikoki onartua ez den hizkuntza batean izkribatzeak bortxaz itzultzaile bilakarazten gaitu» (Borda 2001c: 38).

Ikusi dugunez, itzulpenari esker lortu du Bordak euskara pertsonal bat asmatzea, beste hizkuntzetan idatzitako testuak itzultzea oso baliagarria baita «[i]kusteko norberaren hizkuntza noraino joan daitekeen, bere mugak deskubritzeko» (Borda 2013a: 5). Itzulpenak balio izan dio, neurri handi batean, euskal literaturan inoiz jorratu gabeko gaiak euskarara ekartzeko ere. Euskal literatura eta euskal itzulpengintza mende luzez elite boteredun katoliko eta patriarkal baten gidaritzapean egon direla jakitun, Bordak itzulpena darabil elite horrek ezarritako kanonaren aurka egin eta duela gutxi arte euskaraz irakur ezin zitezkeen autore, obra eta gaiak euskal irakurleari eskaintzeko.

Itzulpena hain egon da presente Itxaro Bordaren obran, non sorkuntza orijinalaren eta itzulpenaren arteko muga ere lausotua gertatzen baita askotan. Hainbat adibiderek inoiz ilustratu nahi izan dugun bezala, beste autore batzuen lanak itzultzean sorkuntza-lan bat egiten du ezinbestean, eta, zuzenean euskaraz sortzen ari denean ere, itzultzearen antzeko ariketa egiten du maiz, aurretik irakurritako testuak tradituz, birmoldatuz, parodiatuz, edota haiek eragindako inspirazioz zerbait berria sortuz.

Artikulu honen mugak direla eta, orriotan ezin izan dugu Itxaro Bordak euskaraz sortutako eta gero frantsesera itzultitako lanen azterketarik eskaini, baina uste dugu itzulpenak eta sorkuntza orijinalak Itxaro Bordaren baitan duten harreman estu hori hobeto ulertzeko ezinbestekoa dela haren auto-itzulpenak aztertzea. Hasiera batean mesfidantzaz begiratzen bazion ere bere obrak erdarara itzultzeari,⁵ 2000. urtetik aurrera bere zenbait testu frantsesera itzultzeari ekin zion. Itzulpenari eta auto-itzulpenari esker, hainbat hizkuntzaren artean bizi da etengabe Borda:

Babel berria eraikitzen dut nire baitan eta nahasketa horri esker, joan-etorri uhargarri batez, ama-hizkuntza berrasmatu dezaket. Idazteko era ere itxuraldatzen doakit, itzulpenak nire galdera zenbaiti erantzuteko ahala oparitu didalakoan (Borda 2013a: 15).

«Joan-etorri uhargarri» horretan, lausotuta geratzen dira hizkuntzen, testuen, identitateen arteko mugak. Jada ez dago argi zer den sorkuntza, zer itzulpen; zer sorburu-hizkuntza, zer xede-hizkuntza; nor autore, nor itzultzaile:

⁵ «[E]ne idazle helburua ez da baitezpada itzulia izatea, baina itzulia izan gabe, edo aurretik, euskaldunak irakurle edukitzea» (Borda 2001c: 25). «Arras itzulpen gutiko euskal idazlea naiz. [...] Itzulia izateko borondatea behar da, eta une honetan ez dut horrelakorik. [...] ez dut «publiko zabalagoaren» existentzia onartzen» (Borda 2001c: 38).

Itzultzen ari naizenean, euskaratik nigan daramadan beste hizkuntza hain intimo hartara, nire ni-a beste bat bilakatzen jarraitzen dut, ikusten dut, kezkatzen nau, galdezkutzen naiz, ez dakit nor naizen, ni hori ala ni izanez jada bestea den ni hura (Borda 2013a: 16).

Aipu horrekin itxiko dugu oraingoz Itxaro Bordaren itzulpengintzari buruzko azterketa hau, hurrengo baterako utziz haren auto-itzulpenek eta sorkuntzazko lanek duten loturaren ikerketa.

Aipamenak

- Atutxa, Ibai. 2008. «Itxaro Borda bestaldetik: mugaldeko identitate baten sorrera». *Egan* 3-4, 5-19.
- Atutxa, Ibai. 2011. «Hacia una *queer Basque nation* desde la poesía de Itxaro Borda». *Lectora: revista de dones i textualitat* 17, 199-220.
- Borda, Itxaro. 1985. «Eredu literarioen transmizioa Ipar Euskal Herrian». *Maiatz* 10, 34-36.
- Borda, Itxaro. 2001a. «Iparraldeko literaturari sohako bat». In K. Uribe (arg.), *Azken aldiko euskal narratiba. Sortzaileak eta irakurleak*. Bilbo: UEU. 17-25.
- Borda, Itxaro. 2001b. «Plazarakoak? Bai noski». In K. Uribe (arg.), *Azken aldiko euskal narratiba. Sortzaileak eta irakurleak*. Bilbo: UEU. 127-135.
- Borda, Itxaro. 2001c. «Traditore ala?». *Hegats* 29, 25-39.
- Borda, Itxaro. 2006. *Kaukasiar krezko borobila* [Bertolt Brechten *Der kaukasische Kreidekreis* antzezlanaren itzulpena]. [s. l.]: Artezblai.
- Borda, I. 2010a. «Gaiaren minean». In I. Egaña (arg.), *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae. 317-334.
- Borda, Itxaro. 2010b. «Ikuspuntu berezia ala unibertsala?» [Monique Wittigen «*Le Point de vue, universel ou particulier*» artikularen itzulpena]. In I. Egaña (arg.), *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae. 279-288.
- Borda, Itxaro. 2013a. «Etxetik etxera itzuliz». [UEUren udako ikastaroetan emandako hitzaldia. Baiona, 2013-07-11.]
- Borda, Itxaro. 2013b. «*Paris-la-Politique* eta beste zenbait kontu liburuko hiru kontakizun» [Monique Wittigen hiru kontakizun, Itxaro Bordak itzuliak: armiarma.com. <http://ekarriak.armiarma.com/zizkak/?wittig02&m=>]
- Borda, Itxaro. 2014. *Maria Mercé Marçal* [Itxaro Bordak euskaratutako poesia antologia]. Donostia: Susa.
- Gabilondo, Joseba. 2000. «Itxaro Borda: melancholic migrancy and the writing of a national lesbian self». *ASJU* 34.2, 291-314.
- Retolaza, Iratxe. 2010. «Begirada lesbiarrak Itxaro Bordaren nobelagintzan». In I. Egaña (arg.), *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae. 125-137.
- Retolaza, Iratxe. 2013. «Amaia Ezpeldoi detektibea: ibiltari sinbolikoa eta kode urratzailea», [Literatura Eskolaren barruan emandako hitzaldia. Iruñea, 2013-04-20.]
- Wittig, Monique. 1999. *Paris-la-politique: Et autres histoires*. Paris: Éditions P.O.L.

Eranskina: Itxaro Bordaren itzulpenak⁶

NON eta NOIZ	Izenburua	Mo	Autorea	G/E	Nongoa	Noizkoa
M 9 (1985-05) 08-09	Beste buruz-buruzko gudua	I	Jorge Luis Borges	G	Argentina	1899-1986
M 9 (1985-05) 20	Maiate bati	P	Sappho	G	Grezia	K. a. 612-557
M 9 (1985-05) 20	Nostalgia	P	Li T'ai-Po	G	Txina	701-763
M 9 (1985-05) 20	Mendian	P	Li T'ai-Po	G	Txina	701-763
M 9 (1985-05) 21	Soneto VI (Vita Nova-tik)	P	Dante	G	Italia	1265-1321
M 9 (1985-05) 21	Soneto VIII (Vita Nova-tik)	P	Dante	G	Italia	1265-1321
M 9 (1985-05) 21	Hitzak	P	Ahmed Fouad Negm & Cheikh Imam	G	Egipto	1929-1918-1995
M 9 (1985-05) 21	[Zuk ere asko desio zenuen]	P	Friedrich Hölderlin	G	Alemana	1770-1843
M 9 (1985-05) 22	N.N.tzako eresikanta	P	Czeslaw Milosz	G	Polonia	1911-2004
M 9 (1985-05) 23	Aitameri	P	Kahlil Gibran	G	Libano	1883-1931
M 10 (1985-10) 14	[Sasipean urelloreak biltzen ari ...]	P	Tao Yuanming	G	Txina	365?-427
M 10 (1985-10) 14	Nostalgia	P	Li T'ai-Po	G	Txina	701-763
M 10 (1985-10) 14	Mendian	P	Li T'ai-Po	G	Txina	701-763
M 10 (1985-10) 14	Merkantariaren atsegina	P	Li T'ai-Po	G	Txina	701-763
M 10 (1985-10) 15	[Kantua ixildu da]	P	Qian Qi	?	Txina	722-780?
M 10 (1985-10) 15	[Gauaren erdian etorri eta]	P	Bai Juyi	G	Txina	772-846
M 10 (1985-10) 15	[Zubigainean, inguruari begira...]	P	Bian Zhilin	G	Txina	1910-2000
M 10 (1985-10) 15	Tao-Te-King (bidea eta bertutea)	P	Lao Tzeu	G	Txina	K. a. III
M 10 (1985-10) 16	Euriaren kanta	P	Gu Cheng	G	Txina	1956-1993
M 10 (1985-10) 16	Anderseni	P	Gu Cheng	G	Txina	1956-1993
M 10 (1985-10) 17	Berde	P	Ai Qing	G	Txina	1910-1996
M 10 (1985-10) 17	Eguzkiaren hiriko orroimenak	P	Bei Dao	G	Txina	1949-
M 10 (1985-10) 17	Atzo zen	P	Bei Dao	G	Txina	1949-
M 10 (1985-10) 18	Urmael zerutiar	P	Zhou Liangpei	?	Txina	xx. mendea
M 10 (1985-10) 18	Sufrantza	P	Lei Shuyan	?	Txina	1942-
M 10 (1985-10) 18-19	Amaitu gabeko poema bat	P	Jiang He	?	Txina	1950-
M 10 (1985-10) 20	Kantua	P	Yan Li	G	Txina	1954-
M 10 (1985-10) 20	Harri oihan	P	Xiao Fan	?	Txina	????
M 10 (1985-10) 21	Injustizia baten aurka	P	Zhou Jiadi	?	Txina	1947-
M 10 (1985-10) 21	Gau izarti	P	Yan Ming	G	Txina	1964?-
M 10 (1985-10) 21	[O itsaso maita nazazu]	P	Gu Chong	?	Txina	????
M 10 (1985-10) 22	[Egia da orduan]	P	Shu Ting	E	Txina	1952-
M 10 (1985-10) 22	[Beldur ote zara?]	P	Shu Ting	E	Txina	1952-
M 10 (1985-10) 23	Banbuzko txapela	P	He Jimming	?	Txina	????
M 10 (1985-10) 23	20. lana	P	Lin Hengtai	?	Txina	????
M 10 (1985-10) 23	46. lana	P	Lin Hengtai	?	Txina	????
M 10 (1985-10) 23	Seskazko geziak	P	Luo Gengye	?	Txina	????
M 11 (1986-05) 41	Last blues, to be read some day	P	Cesare Pavese	G	Italia	1908-1950
M 11 (1986-05) 41	Heriotza etorriko da eta zure...	P	Cesare Pavese	G	Italia	1908-1950
M 11 (1986-05) 42	Lan egiteak nekatzen du	P	Cesare Pavese	G	Italia	1908-1950
M 11 (1986-05) 42	Teilatuaren paradisuan	P	Cesare Pavese	G	Italia	1908-1950
M 11 (1986-05) 43	Gauko atseginak	P	Cesare Pavese	G	Italia	1908-1950
M 12 (1986-12) 9	Antxarra	P	Alexandre Pouchkine	G	Errusia	1799-1837
M 12 (1986-12) 10	Poetaren heriotza	P	Mikhail Lermontov	G	Errusia	1814-1841
M 12 (1986-12) 10	Untzia	P	Mikhail Lermontov	G	Errusia	1814-1841
M 12 (1986-12) 11	Eskuak gogortzen nituen, palto...	P	Anna Akhmatova	E	Errusia	1889-1966
M 12 (1986-12) 11	Azken aldiko kantua	P	Anna Akhmatova	E	Errusia	1889-1966

⁶ Laburdurak: M: Maiatz; Mo: Mota; H: Hegats; n.: negua; P: Poema; N: Narrazioa; An: Antzerkia; Ar: Artikulua; I: Ipuina; G: Gizonezkoa; E: Emakumea.

NON eta NOIZ	Izenburua	Mo	Autorea	G/E	Nongoa	Noizkoa
M 12 (1986-12) 12	Normahik bezala: maitatu dut	P	Boris Pasternak	G	Errusia	1890-1960
M 12 (1986-12) 12	Ipuin latza	P	Boris Pasternak	G	Errusia	1890-1960
M 12 (1986-12) 012-13	Nere sorterrian bizitzeaz...	P	Serguei Essenine	G	Errusia	1895-1925
M 12 (1986-12) 14	Esperantza	P	Vladimir Maiakowski	G	Errusia	1893-1930
M 12 (1986-12) 15	15000000 obratik poesia zatiak	P	Vladimir Maiakowski	G	Errusia	1893-1930
M 12 (1986-12) 15	Etorri gara...	P	Vladimir Maiakowski	G	Errusia	1893-1930
M 12 (1986-12) 16	Negua, oihanean	P	Arseni Tarkovski	G	Errusia	1907-1989
M 12 (1986-12) 17	Dantza izarren aintzinean izarra...	P	Arseni Tarkovski	G	Errusia	1907-1989
M 12 (1986-12) 17	Gero eta erreagoko bizitzaren...	P	Arseni Tarkovski	G	Errusia	1907-1989
M 12 (1986-12) 17	Hemen xoilik ezin sinetsizko...	P	Olga Bergholtz	E	Errusia	1910-1975
M 12 (1986-12) 18	Baltikako goialde zapuztu hori...	P	David Samoilov	G	Errusia	1920-1990
M 12 (1986-12) 18	Lasto usaina zegoen, selauruan...	P	David Samoilov	G	Errusia	1920-1990
M 12 (1986-12) 18	Hiri nagusiko	P	Evgueni Evtouchenko	G	Errusia	1933-
M 12 (1986-12) 20	Normahik bezala: maitatu dut	P	Boris Pasternak	G	Errusia	1890-1960
M 12 (1986-12) 20	Beldur eta ikara, beldur eta ikara...	P	Alexandre Kouchner	G	Errusia	1936-
M 12 (1986-12) 20	Parke menditsu, nahasi,...	P	Alexandre Kouchner	G	Errusia	1936-
M 12 (1986-12) 21	Utz nezazu, zoaz menturaz, ...	P	Natalia Galkina	E	Errusia	????
M 12 (1986-12) 21	Non zaude lehen silaba?...	P	Natalia Galkina	E	Errusia	????
M 13 (1987-05) 31	Ah, ah!	P	Paol Keineg	G	Bretainia	1944-
M 13 (1987-05) 31	Denboraren mugikortasunean...	P	Veronica Grall	E	???	????
M 13 (1987-05) 33	Sistro	P	Eugene Guillevic	G	Bretainia	1907-1997
M 13 (1987-05) 34	Heriotz ikargarria	P	Jacques Josse	G	Bretainia?	????
M 13 (1987-05) 34	Loire ibaia	P	Bertrand Borne	?	Bretainia?	????
M 13 (1987-05) 35	Angela Duvali	P	Denise le Dantec	E	Bretainia	1939-
M 13 (1987-05) 35	Eguzkipean gorrailldu teiltatu,...	P	Sofia Durand	?	???	????
M 13 (1987-05) 35	Inguma txar	P	Pier Tangi	?	???	????
M 13 (1987-05) 35	Hainbat gaixto	P	Kergedal	?	???	????
M 13 (1987-05) 35	Ibili	P	Kergedal	?	???	????
M 13 (1987-05) 36	Lantegira	P	Jean Luc Dey	?	???	????
M 13 (1987-05) 36	Musika	P	Jean Luc Dey	?	???	????
M 13 (1987-05) 37	Nahasketa	P	Andre Leal	?	???	????
M 13 (1987-05) 37	Gerlariak	P	Andre Leal	?	???	????
M 13 (1987-05) 37	Erradazu zuk Juan	P	Angela Vannier	?	???	????
M 13 (1987-05) 53	Dekazavilleko meatzaleek...	P	Jean Boudou	G	Okzitania	1920-1975
M 13 (1987-05) 53	1907an zen...	P	Claude Marti	G	Okzitania	1941-
M 14 (1987-12) 26	Amets	P	Fatou Sow Ndiaye	E	Senegal	1956-2004
M 14 (1987-12) 26	Seaska kanta	P	Fatou Sow Ndiaye	E	Senegal	1956-2004
M 14 (1987-12) 26	Eguzki sartze	P	Fatou Sow Ndiaye	E	Senegal	1956-2004
M 14 (1987-12) 26	Luma	P	Fatou Sow Ndiaye	E	Senegal	1956-2004
M 14 (1987-12) 26	Mandingue meza, negro-afrikar...	P	Mamadou Traore Diop	G	Senegal	1944-2010
M 14 (1987-12) 27	Eza naiz	P	Mamadou Traore Diop	G	Senegal	1944-2010
M 14 (1987-12) 27	Begiak galde	P	Mamadou Traore Diop	G	Senegal	1944-2010
M 14 (1987-12) 27	Kontestatzen dut	P	Ibrahima Sall	G	Senegal	1949-
M 14 (1987-12) 28	Awa	P	Marouba Fall	G	Senegal	1950-
M 14 (1987-12) 28	Harmattan	P	Amadou Lamine Sall	G	Senegal	1951-
M 14 (1987-12) 28	Manthie	P	Amadou Lamine Sall	G	Senegal	1951-
M 14 (1987-12) 29	Kassak	P	Birago Diop	G	Senegal	1906-1989
M 14 (1987-12) 29	Ama	P	Charles Carrere	G	Senegal	1928-
M 14 (1987-12) 30	Rama Kam	P	David Diop	G	Senegal	1927-1960
M 14 (1987-12) 30	Negar	P	David Diop	G	Senegal	1927-1960
M 14 (1987-12) 30	Amodiozko zinta	P	Ndeye Coumba Mbenge Diakhate	E	Senegal	????-2001
M 14 (1987-12) 30	Anai zuria orrit zait	P	Ndeye Coumba Mbenge Diakhate	E	Senegal	????-2001
M 14 (1987-12) 31	Sableroa	P	Anette Mbaye D'Erneville	E	Senegal	1926-
M 14 (1987-12) 31	Oihan	P	Kine Kirama Fall	E	Senegal	1934-

NON eta NOIZ	Izenburua	Mo	Autorea	G/E	Nongoa	Noizkoa
M 14 (1987-12) 31	Zure begietan	P	Nabil Haidar	G	Senegal	????
M 14 (1987-12) 32	Maite dut/ditut	P	Amadou Moustapha Wade	G	Senegal	1922-2007
M 14 (1987-12) 32	Mintzo zara	P	Leopold Sedar Senghor	G	Senegal	1906-2001
M 14 (1987-12) 33-35	Benedikatua izan bedi	P	Odiseas Elytis	G	Grezia	1911-1996
M 15 (1988-04) 10	Sugearen osagarria	P	René Char	G	Frantzia	1907-1988
M 15 (1988-04) 11	Eramaten gintuen ke hura	P	René Char	G	Frantzia	1907-1988
M 15 (1988-04) 11	Aterabidea	P	René Char	G	Frantzia	1907-1988
M 15 (1988-04) 11	Ez da entzuten	P	René Char	G	Frantzia	1907-1988
M 15 (1988-04) 11	Bukaera hedatua	P	René Char	G	Frantzia	1907-1988
M 16 (1988-09) 25	Palestina	P	Salim Al-Zurkali	?	Palestina	????
M 16 (1988-09) 25	Buruzagiei	P	Ibrahim Touqan	G	Palestina	1905-1941
M 16 (1988-09) 26	Itsasora itzultzea	P	Fadwa Touqan	E	Palestina	1917-2003
M 16 (1988-09) 26	Zati poetikoak	P	Jabra Ibrahim Jabra	G	Palestina	1919-1994
M 16 (1988-09) 27	Sikologia erreakzionarioa	P	Toufiq Sayigh	G	Palestina	1923-1971
M 16 (1988-09) 27	Muskezo zigilua	P	Salim Al-Qasim	G	Palestina	1939-
M 16 (1988-09) 28	Amari	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 29	Gurutze Gorriaz kantu xumea	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 29	18 zenbakiko hila	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 30	Hiltzen dira txoriak Galilean	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 30	Lurruna mirailean	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 31	Pasaientea	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 31	Ene exilioa	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 32	Kantikak	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 32	Kantika VII	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 33	Mediterraneo hegiaren aterbea III	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 33	Beyrutheko poema	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 33	Lurraren poema I	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 33	Lurraren poema III	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 33	Lurraren poema IV	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 34-35	Palestindar minaren kronika	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 16 (1988-09) 36	Nortasun ageria	P	Mahmud Darwich	G	Palestina	1941-2008
M 19 (1990-10) 39	Elkarrizketa planetarioa	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 40	Goldea	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 40	Agrafa	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 40	Lied	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 40	Geografia klasea	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 40	Mastroketean	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 41	Mozkortiarren salmoak	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 41	Etxe tindalariaren jostailua	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 41	Ez dut odol garbirik	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 19 (1990-10) 41	Gorenari, gure jabeari, gorputzen ...	P	Mircea Dinescu	G	Errumania	1950-
M 21 (1994-03) 29-30	Herioaren mezularia agertu baino...	P	Jasna Samic	E	Bosnia	1949-
M 22 (1994-12) 21	Bigarren haurzaroa	P	Angela Duval	E	Bretainia	1905-1981
M 22 (1994-12) 22	Breizh hondamen	P	Angela Duval	E	Bretainia	1905-1981
M 22 (1994-12) 22	Darkness and silence	P	Angela Duval	E	Bretainia	1905-1981
M 22 (1994-12) 23	Despedida	P	Berta Piñan	E	Asturias	1963-
M 22 (1994-12) 24	Iragarki	P	Berta Piñan	E	Asturias	1963-
M 22 (1994-12) 24	1990ko uztailak 10	P	Berta Piñan	E	Asturias	1963-
M 22 (1994-12) 24	In memoriam	P	Berta Piñan	E	Asturias	1963-
M 22 (1994-12) 25	A brasileira	P	Berta Piñan	E	Asturias	1963-
M 22 (1994-12) 25	Hiria II	P	Berta Piñan	E	Asturias	1963-
M 22 (1994-12) 26	Ohiturak	P	Berta Piñan	E	Asturias	1963-
M 22 (1994-12) 26-27	Emakume neurri	P	Luisa Villalta	E	Galizia	1957-2004
M 22 (1994-12) 28	Hire gizon hatzak eta nireak beti...	N	Luisa Villalta	E	Galizia	1957-2004

NON eta NOIZ	Izenburua	Mo	Autorea	G/E	Nongoa	Noizkoa
M 22 (1994-12) 28	Itzalak elestan hasiak dira...	N	Luisa Villalta	E	Galizia	1957-2004
M 22 (1994-12) 29	Stabat mater dolorosa	P	Luisa Villalta	E	Galizia	1957-2004
M 22 (1994-12) 29	Etorriak eta egiaz erranezina den...	P	Luisa Villalta	E	Galizia	1957-2004
M 22 (1994-12) 30	Courante	P	Luisa Villalta	E	Galizia	1957-2004
M 30 (1998-04) 13	Apokalipsia	P	Glenmor	G	Bretainia	1931-1996
M 30 (1998-04) 17	Haur begiak	P	Manuel Maria	G	Galizia	1930-2004
M 30 (1998-04) 21	Gauaren irazkitik	P	Miquel Martí i Pol	G	Katalunia	1929-2003
M 32 (1999-11) 72-73	Requiem Uxio Novoneyarentzat	P	Luisa Villalta	E	Galizia	1957-2004
M 36 (2002-06) 80	Poesiaren alde	P	Yves Bonnefoy	G	Frantzia	1923-
M 44 (2006- n.) 22	Harrien kanta	P	Silva Kaputikian	E	Armenia	1919-2006
M 44 (2006- n.) 22	Hauts koloreko begiak	P	Silva Kaputikian	E	Armenia	1919-2006
M 44 (2006- n.) 22	Lilith	P	Silva Kaputikian	E	Armenia	1919-2006
M 44 (2006- n.) 23	Joan zara	P	Silva Kaputikian	E	Armenia	1919-2006
M 44 (2006- n.) 23	Argi eta itzalezko Armenia	P	Sonia Nigolian	E	Armenia	1950-
M 44 (2006- n.) 24	Gauerd	P	Sonia Nigolian	E	Armenia	1950-
M 44 (2006- n.) 24	Kumri, nere joko ahortzen hiria	P	Sonia Nigolian	E	Armenia	1950-
M 44 (2006- n.) 25	Dilidjan	P	Sonia Nigolian	E	Armenia	1950-
M 44 (2006- n.) 25	Udaberri madarikatua II	P	Sonia Nigolian	E	Armenia	1950-
M 44 (2006- n.) 26	Biharko haurra	P	Shamiram Sevag	E	Armenia	1914-
M 44 (2006- n.) 26	Erro gabeak	P	Shamiram Sevag	E	Armenia	1914-
M 44 (2006- n.) 27	Aintziran	P	Shamiram Sevag	E	Armenia	1914-
M 44 (2006- n.) 27	Hara gorputza I	P	Violeta Krikorian	E	Armenia	1961-
M 44 (2006- n.) 28	Musua emaidazu	P	Violeta Krikorian	E	Armenia	1961-
M 44 (2006- n.) 28	Halaz	P	Violeta Krikorian	E	Armenia	1961-
M 44 (2006- n.) 28	Hara gorputza II	P	Violeta Krikorian	E	Armenia	1961-
M 44 (2006- n.) 29	Eta guk	P	Violeta Krikorian	E	Armenia	1961-
M 44 (2006- n.) 29	Egarri nintzen	P	Marine Petrosian	E	Armenia	1960-
M 44 (2006- n.) 29	Erortzen doan arbolaren azantza	P	Marine Petrosian	E	Armenia	1960-
M 44 (2006- n.) 30	Nork ez du bere biskotxa?	P	Marine Petrosian	E	Armenia	1960-
M 44 (2006- n.) 30	Lursagarra	P	Marine Petrosian	E	Armenia	1960-
M 44 (2006- n.) 30	Mutu	P	Marine Petrosian	E	Armenia	1960-
M 44 (2006- n.) 30-31	Katu zuriak hastio ditut, Horatio	P	Marine Petrosian	E	Armenia	1960-
M 44 (2006- n.) 31	Erevan muga hiri bat da	P	Marine Petrosian	E	Armenia	1960-
M 49 (2009-12) 65-71	Eguzki harri	P	Octavio Paz	G	Mexikarra	1914-1998
H 11 (1994) 61	Izari zaharra	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 62	Ipurtargia	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 62	Kirkira	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 62	Leizafina	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 64	Txirrita	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 64	Gatua	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 64	Txakurra	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 66	Ahuntza	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 66	Oilarra	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 66	Emakumeak eta jantziak	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 66	Gaua eta eguna	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 68	Izotza	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 68	Sugea	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 68	Harrulia	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 70	Adarbakuna	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 70	Papagaia	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 70	Beribil horia	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 72	Huntza	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 72	Erloiu	P	Renat Nelli	G	Okzitania	1906-1982
H 11 (1994) 74	[Iragan urtean erre...]	N	Miquel Decor	G	Okzitania	1949-

NON eta NOIZ	Izenburua	Mo	Autorea	G/E	Nongoa	Noizkoa
H 11 (1994) 76	[Aska nazazu Jauna...]	N	Miquel Decor	G	Okzitania	1949-
H 11 (1994) 78	[Betidanik...]	P	Ives Roqueta	G	Okzitania	1936-
H 11 (1994) 80	[Idaztearen lekua...]	P	Ives Roqueta	G	Okzitania	1936-
H 11 (1994) 82	[Occitaniako erregea...]	P	Alain Roch	G	Okzitania	1952-
H 11 (1994) 84	[Deusentzat olerkia...]	P	Alain Roch	G	Okzitania	1952-
H 11 (1994) 86-92	Egutegia	P	Joan Larzac	G	Okzitania	1936-
H 11 (1994) 94	Poeta	P	Marcéla Delpastre	E	Okzitania	1925-1998
Artezblai, 2006	Kaukasiar krezko borobila	An	Bertolt Brecht	G	Alemania	1898-1956
Desira desordenatuak, 2010	Ikuspuntu berezia ala unibertsala?	Ar	Monique Wittig	E	Frantzia	1935-2003
armiarma.com, 2013	Ihauteria	N	Monique Wittig	E	Frantzia	1935-2003
armiarma.com, 2013	Eromenari deika	N	Monique Wittig	E	Frantzia	1935-2003
armiarma.com, 2013	Isolazionistak ala isolatuak?	N	Monique Wittig	E	Frantzia	1935-2003
Icaria, 2013	Hats hartze mekanikoa	?	Tina Escaja	E	Espainia	1965-
Susa, 2014	Maria Mercè Marçal	P	Tina Escaja	E	Katalunia	1952-1998